



## ARABA EUSKARAZEK BAKARDADEAK GARAITU ZITUENAK IKUSKIZUNA ESKAINIKO DU OTSAILAREN 28AN LAUDIOKO GRANJA KIROLDEGIAN

Laudio Ikastolak Araba Euskaraz 2021 kanpainako kultur programaketaren lehen ekitaldia burutuko du otsailaren 28an. Estreinako hitzordu honetan, bertsolaritza, euskal dantzak, balleta eta zuzeneko musika uztartzen dituen “Bakardadeak garaitu zituenak” ikuskizuna eskainiko dute Laudioko Granja kiroldegian, eguerdiko 12etan. Sarrerak Araba Euskaraz on-line dendan erosi ahalko dira 5 eurotan, [www.arabaeuskaraz.eus](http://www.arabaeuskaraz.eus) helbidean.

### BAKARDADEAK GARAITU ZITUENAK IKUSKIZUNA

“Bakardadeak garaitu zituenak” ikuskizuna Ameriketara artzain bezala lanera joandako Txomin Malaxetxebarria gazte euskaldunaren bizitzan oinarrituta dago. Koldo San Sebastian kazetariaren artikulu batean izan zuen haren berri Jose Antonio Eluk, proiektuaren sortzaileak, eta abesti baterako gaia bihurtu zuen, gerora ikuskizun honetarako bizkarrezur bilakatu.

XIX. mende amaiera eta XX.aren hasierako Euskal Herriko egoerak, maiorazkoa, probrezia zein bestelako askotariko arrazoia zirela medio, amets amerikarra jorrazera eraman zituen hainbat migratzaile euskaldun. Horrela abiatu zen Txomin Malaxetxebarria Gizaburuagatik 1912an, 19 urte zituela.

Ikuskizunak berriz, amets huraren bila joan eta hainbatek bizitako bakardade eta etsipena dakar gogora. Izan ere, Nevadako lur sail desertikoetan bizitako egoera latzak burua galtzera eraman zuen protagonista, kaleetan eskean ibili ondoren ospitaleratuta bukatu zuelarik. Bertoko erizain bat eta beste gaixo bat hil zituen eta 1952 urtean heriotza-zigorra jaso zuen gas ganberan.

### BERTSOLARITZA, DANTZA ETA MUSIKA

Ikuskizunean bertsolaritza, dantza eta musika uztartzen dira. Ricardo Gonzalez de Durana bertsolariak Txomin Malaxetxebarriaren papera antzezten du eta Felipe Zelaietak narratzailearena. Shuyana Izagak eta Mikel Etxebarriak dantza tarteak taularatzen dute kontakizunean eta zuzeneko musika Ardi Ilun Blues Band taldearen esku dago: Alfonso Rojo “Gorri”, bateria; Alberto de la Casa, baxua; Nando de la Casa, teklatuak; Mikel Lacalle, ahotsa eta gitarra; Felipe Zelaieta, txistua eta gitarra; Jose A. Elu, gitarra.

zabal bideak  
ARABA EUSKARAZ 2021 LAUDIO

# Bakardadeak garaitu zituenak

BERTSOLARITZA, DANTZA ETA MUSIKA IKUSKIZUNA

Felipe Zelaleta  
eta Ricardo Gonzalez  
de Durana  
BERTSOLARIAK

Mikel Etxebarria  
eta Shuyana Izaga  
DANTZARIAK

Ardi Ilun  
Blues Band  
taldea  
ZUZENKO  
MUSIKA

Jose Antonio Elu  
ZUZENDARIA

Otsailaren 28an 12:00etan, Laudioko Granja kiroldegian  
Sarrera: 5€ /Aldez aurreko salmenta [www.arabaeuskaraz.eus-en](http://www.arabaeuskaraz.eus-en)

IkastolenKartea LAUDIO UDALA ikastola Arabako Foru Aldundia Quetzal Festival de Álava Vital





## **EL ARABA EUSKARAZ OFRECERÁ EL ESPECTÁCULO “BAKARDADEAK GARAITU ZITUENAK” EL 28 DE FEBRERO EN EL POLIDEPORTIVO LA GRANJA DE LAUDIO**

El 28 de febrero Laudio Ikastola desarrollará el primer acto cultural programado dentro de la campaña Araba Euskaraz de 2021. En esta primera cita se ofrecerá el espectáculo “Bakardadeak garaitu zituenak” (Vencidos por la soledad), que combina bertsolaris, danzas vascas, ballet y música en directo, en el polideportivo de La Granja de Laudio a las 12:00. Las entradas estarán a la venta en la tienda on-line de Araba Euskaraz al precio de 5 euros en la web [www.arabaeuskaraz.eus](http://www.arabaeuskaraz.eus).

### **ESPECTÁCULO BAKARDADEAK GARAITU ZITUENAK**

El espectáculo “Bakardadeak garaitu zituenak” se basa en la vida del joven vasco Txomin Malaxatxebarria, que emigró a América para trabajar de pastor. Jose Antonio Elu, creador del proyecto, conoció su historia a través de un artículo del periodista Koldo San Sebastián, componiendo una canción que más adelante ha servido para vertebrar el espectáculo que presenta ahora.

A finales del siglo XIX y principios del XX la situación en Euskal Herria, como el mayorazgo, la pobreza y otras muchas, llevó a muchos migrantes vascos a embarcarse en el sueño americano. Así partió de Gizaburuaga Txomin Malaxetxebarria en 1912 con 19 años.

El espectáculo por su parte trae a la memoria la soledad y decepción que en muchos casos vivieron aquellas personas migrantes. De hecho, las duras condiciones de las tierras desérticas de Nevada llevaron a perder la cabeza al protagonista, que tras vivir en la indigencia en las calles acabó internado en un hospital. Allí acabó con la vida de una enfermera y otro interno, por lo que en 1952 se le aplicó la pena de muerte en la cámara de gas.

### **BERTSOLARIS, DANZA Y MÚSICA**

En el espectáculo se combinan bersos, danza y música: el bertsolari Ricardo González de Durana encarna al protagonista, Txomin Malaxatxebarria, y el también bertsolari Felipe Zelaieta es el narrador de la historia. Shuyana Izaga y Mikel Etxebarria incorporan la danza al relato y Ardi Ilun Blues Band se encarga de la música en directo: Alfonso Rojo “Gorri”, batería; Alberto de la Casa, bajo; Nando de la Casa, teclados; Mikel Lacalle, voz y guitarra; Felipe Zelaieta, txistu y guitarra; Jose A. Elu, guitarra.

